


## GURE HERRIKO ZARATAK

Dagoeneko jakingo duzue zarata dezibeliotan neurtzen dela.

Dezibelioekin ohitzen joateko, jarraian duzuen dezibelioen eskalan oinarrituta zarataren termometro handi bat egingo duzue (papera eta kolarekin) gelan edo pasilloan jartzeko.

140 dB		Gertuko tiroak (eskopetarenak)
130 dB		Mailu pneumatikoa
120 dB		Hegazkinak abiatzen
110 dB		Petardoak, su-ziriak, autoaren bozina
100 dB		Motoa azelerazioan, Rock musikako banda, oihuak
90 dB		Lantegiko makinak lanean, 15 metrotara autopista, kafea ehogailua.
80 dB		Zabor kamioia, txirrina, iratzargailua
70 dB		Bulegoan lan ordutan, trafiko ugaria
60 dB		Aspiragailua
50 dB		Jendeak hitz egiten, kale aldera ematen duen leiho itxia
40 dB		Itxaron gelan txutxu-mutxuka
30 dB		Kostaldean olatu suabeak, liburutegian
20 dB		Zuhaitzen hostoak mugitzen
10 dB		Arnasketa normala, pauso suabeak
0 dB		



Ondoren, herriko hainbat lekutara joango zarete sonometroekin zarata neurtzera.

Horretarako, herriko planoan hartuko duzue eta taldetan banatuta (4 edo 5 ikasle talde bakoitzean), egin behar duzuen ibilbidean markatuta dauden puntuak banatuko dituzue. Talde bakoitzak bi puntu izango dituzue neurketa egiteko. Puntu batzuetan komenigarria izango da bi neurketa egitea, bata, ordu lasaietan, bestea, lanerako edo eskolarako sarrera orduetan, edo zarata gehien dagoen orduetan. Horrela emaitzak alderatu ditzakezue.

Bestalde, trafiko askoko errepide bazterretan zarataren aurkako pantailak jarri ohi dituzte zarata gutxitzeko. Pantaila horiek izan daitezke naturalak (zuhaitzak) edo artifizialak (kristalezkoak, paretak, etxeak...). Pantailarik gabeko gunetan eta pantailak dauden gunetan ere zarata neurtuko duzue eta emaitzak alderatuko.

Neurketa egin ondoren, jasotako datuak google docs-en zintzilikatu beharko dituzue. Horretarako baduzue bertan taula bat eta hori osatu beharko duzue. Bestalde, datuen arabera eta honako koloreen eskalan oinarrituta, Google maps-en neurtu dituzuen puntuei kolore bat edo bestea emango diezue:

<b>Urdina 0-35 dB</b>
<b>Berdea 35-50 dB</b>
<b>Horia 50-80 dB</b>
<b>Laranja argia 80-100 dB</b>
<b>Laranja iluna 100-120 dB</b>
<b>Gorria +120 dB</b>

LH 3. zikloa



Orain, jaso dituzuen emaitzak kontuan izanda, taldeka erantzun honako galderei eta gela osoaren artean ondorioak eztabaidatu:

- Zein dira leku zaratatsuenak? Eta lasaienak?
- Leku berean neurketa bat baino gehiago egin al dituzue?
- Leku horietako zarata berdina al da eguneko ordu guztietan?
- Desberdina bada, zergatik?
- Neurtu dituzuen puntuetan zeinek eragiten du nagusiki zarata? (obrak, garraioak...).
- Zarataren aurkako pantailak (paretak, etxeak, zuhaitzak...) dauden inguruetan eta ez daudenetan zarata berdina al da?
- Zarataren termometroan oinarrituta, zein dira egoera zaratatsu ohizkoenak?
- Zure iritziz, eguneroko bizitzan maila altuko ala baxuko zarataz inguratuta bizi gara?
- Ba al zenekien OMEk (Osasunaren Mundu Erakundeak) gomendatzen duela egunez 65 dBtik eta gauzez 40 dBtik ez pasatzea?
- Zure mapan, zein leku egongo lirateke muga horren barruan? Maparen zati handia ala txikia uste duzue dagoela garraioaren zarataren menpean?
- Zein neurri erabil ditzakegu zarata maila jaisteko?
- Eta Udalak?